



# ERMUKO UDALA

## Toki Garapenerako Saila



---

Jardueren memoria

2014. Urtea

---

## Aurkibidea

<b>1</b>	<b>SARRERA .....</b>	<b>2</b>
<b>2</b>	<b>SAILAREN AURKEZPENA. ....</b>	<b>2</b>
2.1	MISIOA .....	2
2.2	IKUSKERA .....	2
2.3	BALIOAK .....	2
<b>3</b>	<b>ANTOLAKETA-EGITURA.....</b>	<b>2</b>
3.1	ANTOLAKETA-EGITURA.....	2
3.2	NON GAUDE? .....	2
3.3	ZERBITZUEN ORGANIGRAMA.....	7
3.4	GAUZATUTAKO AURREKONTUA.....	8
<b>4</b>	<b>TOKI-GARAPENEN SAILAREN JARDUERAK, 2014 .....</b>	<b>9</b>
4.1	PERTSONEI INFORMAZIOA EMATEA ETA LAGUNTZEA.....	9
4.2	GAITASUN PERTSONALAK ETA PROFESIONALAK HOBETZEA. PRESTAKUNTZA .....	10
4.2.1	<i>Hasierako Lanbide Prestakuntza (HLPP).....</i>	10
4.2.2	<i>Enplegurako prestakuntza .....</i>	11
4.3	GAITASUN PERTSONALAK ETA PROFESIONALAK HOBETZEA. ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZARAKO ORIENTAZIOA .....	12
4.3.1	<i>Enplegu-zentroa .....</i>	12
4.3.2	<i>Orientazio Soziolaborala.....</i>	13
4.3.3	<i>2014ko Gizarte eta Lan Inklusiorako Toki Plana.....</i>	14
4.4	GAITASUN PERTSONALAK ETA PROFESIONALAK HOBETZEA. LANBIDE-ESPERIENTZIA.....	15
4.5	LAN-MUNDUAN TXERTATZEAREN EMAITZAK .....	17
4.6	EKONOMIA-SUSTAPENA.....	18
4.6.1	<i>BITARTEKOTZA .....</i>	19
4.6.2	<i>ENPRESA-SAREARI LAGUNTZEA .....</i>	19
4.6.3	<i>EKINTZAILETZA .....</i>	20
4.6.4	<i>IZARRA FUNDAZIOA .....</i>	23
7.	<i>Hedapena .....</i>	24
4.6.5	<i>PROMOSA.....</i>	24
4.7	PROIEKTU TRANSBERTSALAK .....	27
4.7.1	<i>Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna .....</i>	27
4.7.2	<i>Kalitatea.....</i>	27

---

# 1 SARRERA

---

Dokumentu hau Toki Garapenerako Sailaren jardueraren balantze labur bat da, 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa. Gainera, haren izateko arrazoiaren eta egituraren deskribapena gehitzen da.

---

## 2 SAILAREN AURKEZPENA.

---

---

### 2.1 Misioa

---

Ekonomia sustatzeko proiektuak eta enplegu-politika aktiboak garatzen ditugu, toki-inguruneko pertsonen eta enpresen beharretara egokituta eta toki-/udal-estrategia batean oinarrituta.

---

### 2.2 Ikuskera

---

Berdintasunean oinarritutako gizarte-eredu berri bat lortzea, helburu enplegu betea eta bizi-kalitate handia dituen. Talde-lan sortzailea, berritzailea eta eraginkorra eginez.

---

### 2.3 Balioak

---

- Etika
- Gogobetetzea
- Konpromisoa
- Enpatia
- Sormena / Aldaketarako irekitasuna / Berrikuntza.

---

## 3 ANTOLAKETA-EGITURA

---

---

### 3.1 Antolaketa-egitura

---

Toki-garapenerako udal-arloak hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie udalerriko biztanleei, eta zerbitzu horiek guztiek enpleguaren esparruarekin eta hura bultzatzen duten baldintzekin dute zerikusia. Giza talde espezializatu eta diziplina anitzeko batek ematen ditu zerbitzu horiek.



Gure zerbitzu orokorrak hauek dira:

- Jendeari informazioa ematea eta erantzutea.
- Ekonomia sustatzea, dibertsifikazio ekonomikoa, enpresen lehiakortasuna eta ekintzailatza garatuko dituzten proiektuen bidez.
- Gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzea, prestakuntzaren, gizarte- eta lan-orientazioaren eta enplegu-planen bidez.
- Enplegurako bitartekaritza, Enplegu Agentziaren bidez.

Web-orria: [esteka](#)

## 3.2 Non gaude?

*TORRETA ETXEA: Zerbitzu orokorrak  
Gizarte- eta lan-orientazioa  
Enplegu-zentroa:  
Bizkaia etorbidea, 15  
48260 Ermua  
Telefonoa: 943179151  
Faxa: 943179388  
Email: [dl@udalermua.net](mailto:dl@udalermua.net)*



*IZARRA CENTRE: Sustapen ekonomikoa  
Izarra Fundazioa  
Enpresen zentroa eta mintegi teknologikoa  
Zeharkale 34 eta 36.  
48260 Ermua  
Telefonoa: 943179018  
Faxa: 943176148  
Email: [jlorenzo@udalermua.net](mailto:jlorenzo@udalermua.net)*



*IZARRA, ENPRESAK PRESTATU ETA  
SUSTATZEKO ZENTROA  
Enpresa-mintegia. Prestakuntza-zentroa  
Makina Eskola  
Zeharkale 34. 48260 Ermua  
Teléfono: 943179018 Fax: 943 176909  
Email: [centroizarra@udalermua.net](mailto:centroizarra@udalermua.net)*




*LANBIDE HASTAPENERAKO ZENTROA  
Osma auzoa, z/g  
48269 Ermua  
Telefonoa: 943176422  
Faxa: 943176909  
Email: [cipmallabia@udalermua.net](mailto:cipmallabia@udalermua.net)*



*ARTAMENDI, MAKINA-  
PRAKTIKETARAKO KONPLEXUA  
Artamendi auzoa, z/g  
48.260 Ermua  
Telefonoa: 943179018*




### 3.3 Zerbitzuen organigrama.



### 3.4 Gauzatutako aurrekontua.

GAUZATUTAKO AURREKONTUA 2014		
ENTIDAD	GASTUA	%
UDALA	1.719.328,73	%64,31
EUSKO JAURLARITZA	795.049,52	%29,74
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	32.000,00	%1,20
BESTE BATZUK	127.068,40	%4,75
<b>Guztira.....</b>	<b>2.673.446,65</b>	<b>%100,00</b>



---

# 4 TOKI-GARAPENENKO SAILAREN JARDUERAK. 2014

---

## 4.1 *Pertsonen informazioa ematea eta laguntzea*

---

Jendearentzako Informazio eta Arreta Zerbitzuan izaten da lehen harremana gure zerbitzu guztiak erabiltzen dituzten pertsonekin..

Besteak beste, lan hauek egiten dira: orientazio-agenda administratzea, enplegu-eskaera berritzekoa eguneratzeko laguntzea (EABA), enplegu-zerbitzuekiko izapideei buruzko informazioa ematea eta abar. Era berean, bitartekaritza-lanak egiten ditu herritarren eta saileko gainerako zerbitzuen artean. Bertan dago telefonogunea, pertsonak zerbitzuetara bideratzen dira, haiei buruzko informazio orokorra ematen da eta abar.

2014an, **10.605** izan dira guztira arreta-zeregin horiek; haietatik 5.037 emakumeentzat izan dira, eta 5.568 gizonentzat..





## 4.2 Gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzea. Prestakuntza

Prestakuntza-proiektuak garatzen dira, bai eta proiektu mistoak ere, hau da, prestakuntza- eta enplegu-proiektuak, helburua gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzea izanik.

### 4.2.1 Hasierako Lanbide Prestakuntza (HLPP)

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programek oinarrizko prestakuntza profesionala ematen diete 16 eta 18 urte arteko ikasleei, baldin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarrizko gaitasunak lortu ez badituzte, eta, horrenbestez, DBHko titulua lortu ez badute, eta aukera ematen die ez bakarrik lan-munduan kalitateko txertatzea lortzeko, ikasitako espezialitatean I. mailako Hasierako Lanbide Kualifikazioa ematen zaielako, bai eta irakaskuntza arautuan ikasten jarraitzeko ere, prestakuntza egokia jasotzen baitute DBHko

graduatu-titulua lortzeko eta/edo maila ertaineko prestakuntza-zikloetan sartzeko proba gainditzeko. Eskaintzen diren espezialitateak hauek dira: Ile-apaintetako laguntzailea, fabrikazio mekanikoko langilea eta ibilgailuak konpontzeko laguntzailea. Zentroak gizarte-integratzaile profesional bat dauka: hezkuntza-komunitateko pertsonen arteko harremanak errazak eta onak izan daitezzen bultzatzeaz gain gizarte- eta hezkuntza-proiektua garatzeaz arduratzen da. Proiektua zentroaren curriculum-proiektuan sartuta dago, eta orientazioa erabiltzen du funtsezko tresna gisa, ikasleen artean alderdi soziopertsonalak eta soziolaboralak garatzeko. Gainera, familia barruko giroa eta harremanak hobetzeko zenbait alderdi lantzen ditu familiekin. Proiektua, neurri batean, udal-sail guztiekiko koordinazio eta lankidetzari, gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko taldeari eta

HLPP 2013/2014 ETA 2014/2015									
ESPEZIALITATEAK	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Teoria orduak	Lantokietan praktikako orduak	Guztira ordu	Ermuko eta Mallabikoak	Ermua eta Mallabitik kanpokoak	Hasiera data
Ibilgailuen mantentze-lanak 1. eta 2. 2013/2014	27	3	30	1.062	330	1.392	5	25	18/09/2013
Fabrikazio mekanikoa 1. y 2. 2013/2014	29	1	30	1.062	330	1.392	11	19	18/09/2013
Ile-apaiketa eta estetika 1. y 2. 2013/2014	2	21	23	1.062	330	1.392	9	12	18/09/2013
<b>Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak 2013/2014</b>	<b>58</b>	<b>25</b>	<b>83</b>	<b>3.186</b>	<b>990</b>	<b>4.176</b>	<b>25</b>	<b>56</b>	<b>18/09/2013</b>
Ibilgailuen mantentze-lanak 1. eta 2. 2014/2015	28	2	30	684	0	684	7	23	10/09/2014
Fabrikazio mekanikoa 1. y 2. 2014/2015	24	0	24	684	0	684	6	18	10/09/2014
Ile-apaiketa eta estetika 1. y 2. 2014/2015	2	26	28	684	0	684	11	17	10/09/2014
<b>Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak 2014/2015</b>	<b>54</b>	<b>28</b>	<b>82</b>	<b>2052</b>	<b>0</b>	<b>2052</b>	<b>24</b>	<b>58</b>	<b>10/09/2014</b>

udalerriko baliabideei esker gauzatzen da.

Gizarte- eta hezkuntza-proiektu horretan, gainera, lehentasunezko lau talde handik elkarlanean eta koordinatuta lan egiten dute: ikasleek, familiek, irakasleek eta Udalak; eta xede bera dute: gazteak gaitzea, heltzen direnean bizitza aktiboa, erabakitsua eta, aniztasunean biziz, inplikatu izan dezaten.

Ekintzak:

- Familien arteko hiru elkartzek.
- 96 jarduera jarrera eta gaitasun pertsonalak, sozialak eta lan-esparrukoak garatzeko.
- Gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuaren udal-baliabideen koordinazioa eta parte-hartzea: Berdintasuna Udaleko baterako hezkuntza-batzordean parte hartuz; orientazio soziolaborala Udaleko orientazio-zerbitzuekin; emakumeak defentsa pertsonalerako prestatzea; alkohola arduraz eta neurriz edatea Mimarte programaren bidez, Irudi Biziak programarekin eta droga-mendetasunerako udal-sailaren lankidetzan arituta; ACABE elakartearekin janaren trastornoak; Aldarte elakartearekin sexu dibertsitatea, Udal Liburutegiarekin irakurtzeko motibazioa, etab.

2013/2014 ikasturteko emaitzak aztertuta, honako hau litzateke emaitzetako batzuen laburpen txikia:

- Ikasleen %88k HLPPa gainditu du.
- Aurkeztutako ikasleen %58k Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortu du.
- Ikasleen %60k ikasten jarraitzen du.
- Ikasleen %20ek lan-munduan txertatu da.

#### 4.2.2 Enplegurako prestakuntza

Langileei, lana dutenei bezala lanik gabe daudenei ere, eskaintzen diegun prestakuntza lan-merkatuaren beharretara egokituta dago, enpresen produktibitate- eta lehiakortasun-eskakizunei erantzuten die, bai eta langileek norberaren burua garatzeko eta lanbidean hobetzeko duten nahiari ere, gaitasuna izan dezaten lanbideetan lan kualifikatua egiteko eta enplegua lortzeko.

Prestakuntza Zerbitzuaren ekintza-ildo nagusiak hauek dira:

##### ▪ Enplegurako lanbide-heziketako ekintzak

Enplegurako Lanbide Heziketako ikastaro kualifikatzaileak garatzen dira, Eusko Jaurlaritzaren kualifikazioen modulu-katalogoan edo profesionaltasun-ziurtagirietan oinarrituta. Eta lantokietako prestakuntzarekin edo, esperientzia lortzeko, lan-praktikekin osatzen dira.

##### ▪ Makina Eskola

Ermuko Udalak “*Obra publikoko, altxatzeko eta garraiatzeko makineriaren mantentze- eta operazio-eskola*” sortu du, eta lurrak mugitzeko, altxatzeko eta garraiatzeko makinaren mantentze- eta erabiltze-jarduera guztiak bertan sartuta daude.

##### Helburuak:

Makina-eskolaren helburu orokorra da jarduera sektorialak egitea dibertsifikazio ekonomikorako eta toki-garapenerako, obra publikoko eta

### Prestakuntza-ekintzak. 2014an garatutako partea

PRESTAKUNTZA-ERAKUNTZAK	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Teoria orduak	Lantokietan praktika orduak	Ordu guztira	Emuko eta Mallabiakoak	Mallabiak kanpokoak	Hasiera data	Amaiera data
<b>ENPLEGU-PRESTAKUNTZA</b>										
GIZARTE L.T.S. (T.E.P. 2013)	8	3	11	114	3 hilabete		11	0	2014/09/16	2014/12/16
GUZTIRA enplegu-prestakuntza	8	3	11	114	3 hilabete	0	11	0	2014/09/16	2014/12/16
<b>L.A.P. Meatze-segurtasuna 2014</b>										
Abiatzea eta karga (5 ikastaroa)	19	0	19	55	0	55	0	19	2014/10/01	2014/12/02
Irabaziak jartzea (3 ikastaro)	17	0	17	30	0	30	0	17	2014/10/14	2014/11/13
Garraioa (4 ikastaro)	17	0	17	50	0	50	0	17	2014/10/22	2014/12/02
zulaketa / mozketak / leherketa (ikastaro 2)	7	0	7	25	0	25	0	7	2014/11/14	2014/11/27
leherketa (barrualdean) (ikastaroa 1)	9	0	9	20	0	20	0	9	2014/12/05	2014/12/12
<b>BFA. Ekonomiaren Sustapena 2014</b>										
enpresa-kudeaketarako ikastaroa	8	11	19	30	0	30	11	8	2014/11/03	2014/11/12
<b>LANBIDE 13 (EESP) ELH</b>										
Pala kargatzaileekin lanak. 0120	14	1	15	276	0	276	3	11	2013/12/31	2014/03/06
Retropalako operadorea. 0291	14	0	14	410	0	410	3	11	2013/12/30	2014/03/27
<b>LANBIDE PRESTAKUNTZA 14</b>										
Hondeatzeko makinetako operadorea. AF15773	12	0	12	800	0	800	3	9	2014/06/02	2014/12/15
<b>Guztira enplegurako prestakuntza</b>	<b>117</b>	<b>12</b>	<b>129</b>	<b>1.696</b>	<b>0</b>	<b>1.696</b>	<b>20</b>	<b>108</b>		

meatzaritzako makinak erabiltze eta mantentzean espezializatuz

Makineria operazioko material didaktiko berriekin, argitalpenekin eta simulazio eta errealitate birtualeko paketeekin lan egiten guztia prestakuntza-programazioaren baitan bildua.

Horretarako, jarduera hauek egiten dira:

#### ▪ Prestakuntza:

1. Enplegurako prestakuntza eta prestakuntza lantokietan.
2. Enplegua-Prestakuntza.
3. Irakasleen prestakuntza.
4. Lan-arriskuen prebentzioa

#### ▪ Merkatua

1. Merkatu-prospekzioa
2. Sektore-ikerketak
3. Lan-bitartekaritza
4. Enpresak sortzen laguntzea

#### ▪ Azpiegiturak

1. Azpiegiturak egokitzea eta baliatzea
2. Makinak egokitzea, berreraikitzea eta mantentzea

#### ▪ Elkarlana

- Zentroekin, enpresekin eta fundazioekin
- Metodologia didaktikoa sortzea prestakuntzarako

#### ▪ Ikerketa eta garapena

- Simulazio-testa
- Lan-arriskuak prebenitzeko material didaktikoak

### 4.3 Gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzea. Enplegu eta prestakuntzarako orientazioa

#### 4.3.1 Enplegu-zentroa

2011n, Ermuko Enplegu Zentroa ireki genuen. Ordutik hona Enplegu Zentro honek etengabe eman ditu bere zerbitzuak, nahiz eta garai batzuetan Lanbideren ekarpen ekonomikorik izan ez duen. Gune fisiko egonkor bat da; bertan, informazioa lortzeko kontsulta-tresnak eta lana bilatzeko bitartekoak jartzen dira langabeen eskura, eta orientatzaile batek laguntza ematen du txertatzeko ibilbideaz eta hura errazteko tresnen erabileraz.

Zerbitzuak aukera ematen du enplegu-bilaketa aktiboan dauden edo egungo enplegua hobetu nahi duten langabeei laguntzeko.

2014an, zerbitzua **2.648 aldiz** erabili zen. 481 pertsona desberdinek erabili dute Enplegu-Zentroa. 284 gizonek eta 197 emakumeek.

#### 4.3.2 Orientazio Soziolaborala

Enplegu eta prestakuntzarako orientazio zerbitzuak aukera ematen du esku hartzeko estrategia pertsonalizatuak garatzeko; besteak beste: orientazio- eta informazio-faseak; ibilbide pertsonalizatuak diseinatzea, enplegua errazago

lortzeko; baliabideak prestakuntzara eta/edo enplegura bideratzea, ibilbide hori abian jartzeko; eta esku-hartzearen fase guztietan laguntzea; bai eta haien ebaluazioa eta geroko jarraipena ere.

Azpitarratzekoa da lankidetzak estua dagoela Udaleko Gizarte Zerbitzuekin, eta, horretarako, diziplina anitzeko lantalde bat sortu da, inguruko gizarte- eta komunitate-zerbitzuen sare osoarekin koordinatuta lan egiten duena.

Egindako orientazioa gizarte- eta lan-esparrukoa da argi eta garbi, pertsonekin alderdi anitzeko ikuspuntu batetik esku hartzen delako, bizitza-esparru guztietan, eragin berezia izanik gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan.

Pertsonak gizarte-esparruko erreferentziarako profesionalen laguntza du Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailaren bidez, bai eta lan-esparruko profesionalena ere, Toki Garapenerako Sailaren bidez.

#### **PERTSONA EZBERDINAK NORABIDERATUAK** **2014**

GIZONAK	244
EMAKUMEAK	202
GUZTIRA	446

## ORIENTAZIO SOZIOLABORALAK. 2014

	JARDUERAK GIZONAK	JARDUERAK EMAKUMEAK	JARDUERAK GUZTIRA 2014	Denbora (orduak) GIZONAK	Denbora (orduak) EMAKUMEAK	Denbora (orduak) GUZTIRA 2014
ENPLEGAGARRITASUNA BALIOESTEIA	98	64	162	62	40	102
TPI (TXERTATZEKO PERTSONALIZATUTAKO IBILBIDEA) /EAPA (ENPLEGURAKO AKORDIO PERTSONALA) EGITEA.	56	39	95	56	22	78
BANAKAKO ORIENTAZIOA	92	89	181	47	45	91,5
BANAKAKO TUTORETZA. JARRAIPENA	170	142	312	128	107	234,25
CURRICULUMA + GUTUN INDIBIDUALA	142	83	225	72	42	113
BANAKAKO ELKARRIZKETA PRESTATZEA	2	1	3	1	1	2
IKTAK ETA ENPLEGU-BILAKETA	46	41	87	24	21	44
GIZARTE-TREBETASUNAK / KOMUNIKAZIOA	8	6	14	4	3	7
INFORMAZIO PROFESIONALA	205	137	342	103	69	171
ESKARIA EGUNERTATZEA	218	167	385	109	84	192,5
AUTOENPLEGURAKO BANAKAKO ORIENTAZIOA	6	6	12	3	3	6
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.043</b>	<b>775</b>	<b>1.818</b>	<b>607</b>	<b>435</b>	<b>1.041</b>

### ORIENTAZIO SOZIOLABORALA. TALDEKO EKINTZAK . 2014

#### PARTAIDEAK

TAILERRAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	ORDUAK
Taldeko elkarrizketarako prestaketa	3	5	8	6
Elkarrizketa. Taldekoa	8	9	17	6
Trebetasun sozialak tailerra	9	3	12	6
Elkarrizketa rako taldeko tailerra	6	7	13	6
Autoenplegu tailerra	5	4	9	6
EBarako tresnak. Orientazioa	8	3	11	6
Elkarrizketa tailerra	7	4	11	6
	46	35	81	42

Jarduera hori egiteko, aldi batzuetan Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren diru-laguntzak izan dira; beste batzuetan, berriz, Udalaren bitartekoekin egin da jarduera bera.

Gure prestakuntzarako orientazio jarduerak azpimarratzekoak dira ere. Akzio hauek zuzenki edo zeharka enpleguarekin erlazioa dute. Herritarrei behar diren tresna guztiak ematea abian jartzeko kualifikazio, birkualifikatze eta/edo birziklatze pertsonala eta profesionala lortzeko prestakuntza-prozesuak.

Prestakuntzarako baliabideiburuzko informazio eskuragarri guztia erakusten da.

Prestakuntzarako behar kolektiboak detektatzen dira ere. Eta behar horiek asetzeko ikastaroak antolatzen dira.

#### **4.3.3 2014ko Gizarte eta Lan Inklusiorako Toki Plana**

Inklusiorako toki-planaren barruan (Toki Garapenerako Sailaren eta Gizarte Zerbitzuetako Sailaren artean prestatua), etengabeko lankordinazioez gain, funtsezko hiru ekintza gauzatu dira 2014an:

• Tokiko Enplegu Planean sartzea; horren ondorioz, lan-kontratua egin zitzaien 2014ko ekainatik abendua arte, Gizarte-serbituek proposatutako 23 pertsoneri (14 gizon eta 9 emakume).

Honetaz gain beste 60 pertsona kontratatutak izan ziren. Guztira 83. Beraz, kontratu guztietako %28 Gizarte-serbituek proposatuta izan dira.

Gainontzekoentzat, autaketa prozesuaren barnean, gizarte egoera kontuan hartu da ere (hipoteka edo alokairua ordaintzeko zailtasunak, langabezian denbora, generoa, 45 urte baino gehiago edukitzea, lanean txertatzeko zailtasun berezia edukitzea.

• Oinarrizko Gizarte Zerbitzuentzat (finantzaketa eta ikasleak beraiek jarri dituzte) 180 orduko prestakuntza antolatzea, Sukaldaritzako Oinarrizko Eragiketen 180 orduko Lanbide Ziurtagira oinarritzat hartuta. Ikastaroa 2014ko azaroa eta 2015eko urtarrila bitartean burutu zen eta Toki Garapenerako Alorrak emaniko 16 orientabide-ordu eduki zituen gainera. Ikasleak 17 izan ziren: 12 emakume eta 5 gizon.

#### **4.4 Gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzea. Lanbide-esperientzia**

Pertsonen enplegarritasuna hobetzen dugu enplegu-programen bidez, haietan lanbideesperientzia lortzen delako, prestakuntza osagarriarekin batera. Eta hala, langabeak kontratatzen ditugu interes orokorreko eta

sozialeko lanak egiteko Ermuan, eta, horri esker, lan-merkatuan lortu nahi dituzten lanbideetan lanesperientzia handitu eta eguneratu egiten dute. Ermuak ere irabazten du enplegu-planekin.

KONTRATATUAK	Gizonak	Emakumeak	Guztira
<b>2013-14 Plana. Lanbideak finantzatua</b>	10	1	11
<b>Tokiko Plana. Udaletxeak finantzatua, I. eta II. faseak</b>	38	24	62

Haietan parte hartzen duten pertsonen jardunak ingurunea eta zerbitzu publikoak hobetzen ditu herritarrentzat. Eta, horrenbestez, udalerrian bizikaltatea handitzen laguntzen du

Urteko Enplegu Planak gizartearen intereseko eta onura publikoko herri-erabilerarako obra eta zerbitzu horiek gauzatzeko behar den langile-kontratazioaren inguruan Udalak egiten duen jarduera guztia jasotzen du. Ezohiko lanak dira, udal lantaldearen ohiko eginkizuna osatzera, ez ordeztara, datozenak.

Osagarri legez, 2014ko Enplegu Planaren zati bat gazte tituludunei begira burutu zen, udalerriko bi proiektu estrategiko sustatzen lagundu zutelarik. Batean udalerriko hirigintza-plangintzetako xehapen-azterketen garapenean herritarren ekarpenak txertatzen aritu ziren, hirigintza arloko soziologi, ingeniari zibil eta arkitektura espezialitateetako pertsonak osaturiko taldean. Bigarren proiektu estrategikoa etxeko arreta zerbitzuak emateko ekimen sozio-sanitario bat jardunean jartzearekin lotuta egon zen. Proiektu horretarako, zeinaren bitartez zerbitzua diseinatzeaz gain, adineko pertsoneri IKTe-tako prestakuntza eman zitzaien, gizarte-langileak,

gizarte-hezitzaileak eta erizaintza arloko langileak kontratatu ziren.

2014ko Enplegu Plana gazteak, emakumeak, luzaroko langabetuak eta, orokorrean, Ermuan enplegua lortzeko zailtasun gehien dituzten guztiak kontutan hartuta burutu zen. Lanbideri eskaintza orokorra egin ondoren, azken aukeraketan familia-erantzukizunen araberako denbora-erabilgarritasuna, diru-sarrera gutxi edo batere ez izatea, eta porrot egoera edota ekonomi kanporaketa egoera bezalako aspektuak izan ziren kontutan.

Enplegu-plana 11 lanposturen elkar finantzaketaz eta beste 60 kontratazio Udalaren kontura bakarrik ordainduz gauzatu da.

Horago aipatzen diren programak 2014an burutu dira eta horregatik jasotzen dira urteko balantze honetan, nahiz eta elkar finantzaketaz ordaindutakoa Lanbidek 2013ko toki-jardueren esparruan emaniko diru-laguntzarekin egin den.

Prestakuntza eskaini da, halaber, enplegua eskuratzeko gabeziak zuzentze aldera, berariazko eta zeharkako gaien inguruan. Prestakuntza hori bi alditan eman da: lehenengoan laneko arriskuen prebentzioa landu da, eta bigarrean harreman-eta gizarte-arloko trebetasunekin loturiko edukiak irakatsi dira, enplegua eskuratzeko gaitasunak hobetuko dituzten trebetasun pertsonal eta lan-arlokoak eskuratzen lagunduz.

Lan-kontratuaren garapenean, jarraipen eta laguntze pertsonalizatua egin da, eta, kontratua amaitutakoan, enplegu-politika aktiboen arloko beste ekintza batzuekin lotu da, lan-merkatuan sarrera izateko. Hori guztia udal-zerbitzuen eta -sailen arteko koordinazioaren emaitza da.



Era berean, parte-hartzaile bakoitzaren lanaren arduradunekin harreman zuzena izanik, zenbait jarraipen-bilera egin dira, lanaren garapena errazteko eta lan-merkatuan sarrera hobea izateko helburu orokorrarekin, lanbide-profilen alderdi egongaitzenak detektatuz eta indartuz.

## 4.5 Lan-munduan txertatzearen emaitzak

Sailak gauzatzen dituen orientazio-, enplegu- eta prestakuntza-programa guztiek lan-munduan txertatzeari dagokionez lortzen dituzten emaitzen jarraipen sistematikoa egiten du Jarraipen hori zenbait eratan egiten da, baina era horien guztien ezaugarria da parte-hartzaile bakoitzak proiektua amaitu zuenetik sei hilabete igaro arte egindako bidearen gutxieneko ezagutza.

Aipamen berezia merezi du Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen (HLPP) kasuak, bi ikasturteko iraupena baitute eta beren helburuetako bat ikasleek ikasketak jarraitzea baita. Horregatik, aurkeztu dugu txertatzearen inguruko emaitzen balantzean ikasketen jarraipena ere hartu da kontuan. Beti 2. mailako ikasleei dagozkien datuekin.

Hortaz, 2014an sei hilabete bete ziren proiektu batzuk amaitu zirenetik, eta ondoren aurkezten diren datuak proiektu horietan lan-munduan txertatzeari dagokionez lortutako emaitzak dira.

### 2014. LANERATZEARI BURUZKO URTEKO EMAITZAK %-TAN

Parte hartu zuten proiektuak amaitu eta ondorengo 6 hilabeteetan lana lortu zuten parte-hartzaileen %-a.

	Parte hartu zuten gizonen guztizkotik	Parte hartu zuten emakumeen guztizkotik	Parte hartu zuten pertsonek guztizkotik
<i>Enplegurako prestakuntza proiektuak</i>	%30,0	%40,0	%31,8
<i>Hasierako Lanbide Kualifikazioko proiektuak</i>	%21,4	%7,7	%17,1
<i>Enplegu proiektuak</i>	%36,4	%18,2	%31,8
<i>Prestakuntza-enplegu proiektuak</i>	%28,6	%100,0	%33,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>%29,7</b>	<b>%25,0</b>	<b>%28,6</b>

arte-hartzaile gisa hartzen diren pertsonak ekintza-ren azken ebaluazioan gai kalifikazioa lortu eta gutxienez orduen % 50ean parte hartu dutenak dira, ebaluazioa duen prestakuntza-edota esperientzia-ekintza baten kasuan. Eta beste ekintza batzuen kasuan, gutxienez orduen % 50ean parte hartu dutenak



## 4.6 Ekonomia-sustapena

Ekonomia Sustapeneko Sailaren helburuak honako hauek dira:

Garapen ekonomiko iraunkorra sustatzea, ekonomia-sareari indartzen lagunduta eta gure udalerrian enpleguaren hazkundea erraztuko duten garatze bidean dauden sektoreetara dibertsifikatuta.

Enpresen lankidetzak, elkarlana eta lehiakortasuna bultzatzea, eragile ekonomiko eta sozialekiko harreman estuari eutsita, espiritu ekintzailea sustatzeaz eta enpresa-ekimen berriak martxan jartzen laguntzeaz gain.

Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak udalerraren egoera sozioekonomikoaren inguruko ikerketak eta analisiak egiten ditu, haren ingurunea kontuan hartuta, eta ekonomia garatzeko ekintza-lerroak eta planak proposatzen ditu, gainerako udal Sailen interes orokorrak kontuan hartzen dituzten helburu jakin batzuen arabera.

Ondorioz, honako ekintza hauek burutu dituzte:

Ermuko enpresen, industriaren, merkataritzaren, turismoaren eta zerbitzuen jardueraren analisi periodikoak egin dira, eta, horretarako, udalerriko eta inguruko enpresekiko harremanari eutsita, haien inguruko informazioa jaso eta ondoren prozesatu egiten dira. Gure sarea gehienbat automobilgintzan oinarritua dago, eta hura dibertsifikatzea lortze aldera, modu sistematikoan enplegu-hobi berriak bilatzen dira. Analisi horren emaitza moduan ikerketak egiten dira, eta epe ertaineko edo luzeko ekonomia-sustapenaren alorrean gauzatu beharrekiko udal ekintzak argitzeko edo definitzeko beharrezkoak diren

proiektuak proposatzen dira. Ermuko Ekonomia Sustapeneko Sailak estuki egiten du lan gure inguruko enpresekiko, epe ertainean eta luzean ekonomikoki iraunkorra den tokiko garapena bermatzeko beharrezko lehiakortasun-mailari eusteko helburuarekin. Udala hainbat jardura garatuz joan da urteetan zehar, une bakoitzeko errealitate ekonomikoaren eskarien arabera. Gogoeta-aldi baten ondoren, erabaki zen ekonomiak une bakoitzean zituen premien arabera jarduketaren eredu batetik prebentziozko eredu batera pasatzea, bertako ekonomiak etorkizunean egoera orokorrekin eragindako inpakturik ez jasotzeko.

Ekintzaile bilaka daitezkeen pertsonen laguntza tekniko eman zaie udal-mugartean enpresak sortzen laguntzeko, bideragarritasun-planak eta merkatu-azterketak eratzeko eta enpresa-ekimenak martxan jartzeko aholkularitzaren bidez. Toki Garapeneko Sailak hainbat enpresa-haztegi ditu ekimen berri horiei tokia eman ahal izateko.

Hitzaldiak, jardunaldiak eta ekitaldiak antolatuta dira udalerriko eta inguruko garapen eta sendotze ekonomikoaren inguruko informazio interesgarria zabaltzeko.

Horren barruan Toki Garapenaren Astearen ospakizuna nabarmendu beharra dago, izan ere, bertan topo egiten dute gure inguruko egitura ekonomikoa osatzen duten eragileek. Alde batetik, jardunaldi bat eskaintzen diegu inguruko ETEei, interes orokorreko gaien inguruan eztabaidatu ahal izan dezaten; bestetik, bertan ikastetxeak izaten ditugu, gure jardunaldietan toki garrantzitsua izaten duen ekintzaile-taldea, eta kezkatzen dituzten alderdiak lantzen dira jardunaldiotan. Azkenik, ezin ditzakegu herritarrak ahaztu, gure

ekintza eta etorkizuneko proiektu guztietako partaide egiten baititugu. Aurten interes berezia izan dute herritarrek parte-hartzeko prozesuek. Haietan parte hartu ahal izan dute eragile ekonomikoek, enpresek, langabeek eta ekintzaileek, eta beren ekarpenen bidez jarduerak ekintza zehatzak proposatu dira.

Ermua inguruko enpresei laguntza eman zaie enplegu-zerbitzu publikoen lankidetzarekin langileak hautatzeko eta kontratatatzeko.



#### 4.6.1 BITARTEKOTZA

Lanbideren lankide gisa, elkarriketak izaten ditugu langileak kontratatu nahi dituzten enprekin, eta lan-bitartekotzarako sistema publikoan (Lanbide) sartzen ditugu datu horiek. Horrela, eskaintzak kudeatu ahal izaten ditugu. 2014 honetan 39 eskaintza kudeatu dira, 56 lanpostuetarako eskaintzak kudeatu dira eta guztira 47 pertsonari eman zaie lana.

#### 4.6.2 ENPRESA-SAREARI LAGUNTZEA

Gure herriko ekonomia oso lotuta dago automobilen osagaien sektorearekin, eta horrek mendekotasun handia eragiten digu enplegu-

sorkuntzari dagokionez, sektore hori gero eta lehiakortasun handiagoko eta aukera estuagoko nazioarteko merkatu baten mende baitago. Ildo horretan, Ermuko Udalak zenbait urte darama ekonomia-sarearen dibertsifikazioa sustatzen saiatzen, balio erantsi handiko eta automobilgintzarekiko mendekotasun txikiko sektoreetarantz.



#### a) Ekonomia-sarearen behatokia

Atal horren barruan, Ekonomia Sustapenerako Sailean harreman estua dago eragile ekonomikoekin, gure enpresa-sarearen egoerari buruzko informazioa biltze eta aholkularitza- eta bideratze-zerbitzua eskaintze aldera. Hortaz, merkatu eta aukera berrien bilaketa aktiboan datza.

#### b) Prestakuntza eta informazioa 14

Beti pentsatu dugu prestakuntza eta informazioa funtsezko zutabeak direla gure enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Hori dela eta, urtean zehar asko dira lerro horretan antolatutako ekintzak, eta bereziki merkataritza- eta zerbitzu-sektorerara zuzendutakoak, horiek baitira alderdi horiek gutxien bereganatuta dauzkaten sektoreak.

Diseño de canales de venta  
Salmenta-kanalen diseinua

Lineako salmenta  
Bezeroarentzako arreta  
0. mailako sare sozialak (2)  
1. mailako sare sozialak  
Elikagai-manipulatuzailea  
Erakarpen-marketina 2.0

c) Lehiakortasuna 14: Berrikuntza, kalitatea,  
lankidetzeta eta modernizazioa  
Leialtze-txartela  
IKT soluzioen ezarpena  
Marketina - Zuntz Neutroa  
Web-orrialdearen garapena  
Laguntzak eta diru-laguntzak bilatzeko lankidetzeta  
Hirigune 2014  
Inplantalari  
Saltokitik Enpresara

d) Dinamizazioa 14

Gabonetako erakusleihen lehiaketa  
Gau Irekia  
Ostalaritzako Inauterietako lehiaketa  
Txikipark  
Kanpaien aurrerapena  
Bono Denda  
Udaberriko eta neguko aukeren azoka  
Udaberriko jaia  
Euskadiko pintxo-lehiaketa

#### 4.6.3 EKINTZAILETZA

---

Honako hauek dira jarduera-lerro horren helburuak:

Garatze bidean dauden sektoreetako enpresa-ekimenei martxan jartzen laguntzea  
Ekintzaileei enpresa-kudeaketaren inguruko prestakuntza eta informazioa ematea (enpresa-

plana, zerga-sistema, FRO ekonomia-azterketa, e.a.)

Herritarrei enpresa-kudeaketako (negoziarako ideiak eta enpresa-plana sortzeko) prestakuntza eskaintzea

Enpresa-proiektuaren garapen-prozesuan laguntzea, hura martxan jarri arte

Ekonomia-sustapenaren alderdi garrantzitsuenetako bat gure udalerrian kultura ekintzaile bat sortzea da. Alderdi horrek aukera ematen digu gure ekonomia-sarearen bideragarritasuna bermatzeko; izan ere, enpresen heriotza logikoa beste berri askoren sorkuntzarekin orekatu behar da ekonomia-sare ona mantentzeko. Horretarako, jendeak autoenplegua norberaren garapenerako aukera garrantzitsu gisa antzematea bideratuko duten tokiko testuinguruak sortu behar ditugu, nahikoa baliabide eta laguntzarekin.

o **Ekintzailetzari lotutako ekintzak:**

- Sustatzaileei informazioa eta aholkuak ematen dizkiegu, enpresa-ekimen berriak sor ditzaten.
- Trebakuntza ematen diegu enpresa-ekimen berriak sortzeko interesa duten pertsoneri.
- Azpiegiturak lagatzen ditugu Izarra esparruko udal-enpresen haztegitan.
- Enpresa-proiektuen lehiaketak antolatzen ditugu.

- o **Lankidetzeta-hitzarmena UNI Eibar-Ermuarekin.**-2013ko ekainean, hitzarmen bat sinatu zen Uni Eibar-Ermuarekin. Hari esker, Ekonomia Sustatzeko Sailak bi aldeentzat interes komunekoak diren

proiektuak bultzatuko ditu; besteak beste: ekintzailetzari buruzko sentsibilizazio-ekintzak abian jartzea; guneak uztea oinarri teknologikoko enpresa-haztegia; eta hezkuntza-arloko informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriekin zerikusia duten proiektuak abiarazteko behar den azpiegitura.



- o **YUZZ.**- 2014an Ermua Yuzz gune bat izan da bigarren (2013an ere izan zen), eta talentua eta espirtu ekintzailea sustatzeko programa bat garatu du, 18 eta 31 urte bitarteko gazteei zuzendua. Hori posible da SPRI taldeak Kantabriako Unibertsitatean integratutako Santander Nazioarteko Ekintzailetza Zentroarekin (CISE) zeukan hitzarmena berritu izanari esker. Programa horretan berrikuntzaren sustapenarekin eta ekintzailetzarekin konprometitutako 30 erakunde publiko eta pribatu baino gehiagok hartzen dute parte.



- o Yuzz Ermua guneak Izarra Centre du kokaleku eta bertan gure herriko 10 gaztek beren negozio-ideiak eta -proiektuak garatu dituzte. Urteko ideiak eta proposamenak oso anitzak izan dira, esaterako sare sozialak, transferentzia teknologiko pribatuko bulego bat abian jartzea, turismo-sektorerara bideratutako mugikor-aplikazioak, arkitektura iraunkoraren inguruko soluzioak, enpresa bateko sailen emankortasuna eta eraginkortasuna hobetzera zuzendutako lineako zerbitzuak, e.a.



- o Ermuko Udalak ondoko baliabideak bideratzen ditu YUZZ programarentzat:



- Lan fisikorako tokia Izarra Centre gunean. Coworking-erako tokia enpresa teknologikoen haztegi lehen solairuan. Wifi-sarbidea. Bilera-tokiak, prestakuntza-gelak, entzun-aretoa, e.a.
- Ideia garatzeko beharrezkoa den euskarria eta aholkularitza teknikoa. Langile eskuragarriak.
- Enpresen sorkuntzaren eta kudeaketaren arloko prestakuntza.
- Teknologia, komunikazio, marketin, proiektu-kudeaketa, berrikuntzaren kudeaketa eta abarrek lotutako proiektuak abiarazteko prestakuntza, Lean Start Up izenez ezaguna.

**Lanbide: Ideiak eta Negozioak.-** Aurten, Lanbideren Ideiak eta Negozio-proiektuak programa batez ere gure herriko gazteei egon da zuzendua. Lanbidek 2.000 euroko finantzazioa ematen dio programen onuradun bakoitzari, eta EGIFek haren % 50 finantzatzen du.

Diru-laguntzei dagokien lerro horrek ekintzaile berriei laguntzen die, ondoren bideragarritasun-plan batean zehaztu ahal izango den enpresa-ideia bat aztertu eta egituratzeko. Hiru hilabetez gutxienez aritu beharko dira horretan, modu eksklusiboan.

Deialdi honetan batez ere Ermuko gazteek hartu dute parte, eta hainbat alorretako ideiak lantzen eta garatzen ibili dira: merkataritza-sektorean lau ekimen daude, teknologiaren inguruko enpresen ingurukoak, hain zuzen hirugarren adinekoei zuzendutako lineako eta lineaz kanpoko jokoak garatzen dituen enpresa bat, negozio-bidaien alorreko sare sozial bat, garraioari zuzendutako geolokalizazio-sistema bat eta ehunak eta QR kodeak uztartzen dituen lineako denda bat. Hiru hilabetez aholkularitza jaso dute Izarra Centre Fundazioaren eta Toki Garapenerako Sailaren eskutik, Izarra Centreko instalazioetan.



- **Enpresen Kudeaketa Ikastaroa – BFA.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren «Autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzeko programa» izenekoaren barruan, Ermuko Udalak, BFArekin batera finantzatuta, enpresak kudeatzeko hiru ikastaro eman ditu, bakoitza 30 ordukoa; ikastaro horiek nahitaezkoak dira BFAk autoenpleguaren sustapenaren alorrean ekintzaileei ematen dizkien laguntzak lortu ahal izateko.

#### 4.6.4 IZARRA FUNDAZIOA

---

2013an, Izarra Fundazioa martxan jarri zen. Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu bat da, eta izaera publikokoa, sorrerako kapital soziala udalekoa izateagatik.

Toki Garapenerako Sailarekin guztiz koordinatuta lan egiten du, bien jarduera esparru estrategiko berean kokatuta dago, eta sortzen diren sinergiak baliatzen dituzte.

Fundazioak xede hauek ditu:

- Enpresa-lehiakortasuna sustatzea.
- Eskualdean enpresa berriak sortzeko dauden aukerak hobetzea, negozio-planak arlo berritzaileetan eta batez ere dibertsifikatzaileetan garatzen dituzten ekintzaileen alde eginez.
- Enpresa-sarea dinamizatzea, haren lehiakortasun-, eraginkortasun- eta errentagarritasun-faktoreen hobekuntzarantz bideratuta.
- Lanpostuen sorrera sustatzea, berekin enpresak sortzea ekar dezan, eta etorkizunean proiektzioa izan dezan gizarte- eta ekonomia-sarean.
- Bide ematea kualifikazio handiko pertsonak Ermura etor daitezen, eta ezagutzak alde egin ez dezan lortzea.

Horrenbestez, 2014an honako jarduera hauek egin edo abiarazi dira:

##### 1. Izarra Gela

---

Ondo trebatutako gazteek alde egin ez dezaten bilatzen du. Horretarako enpresetan proiektu errealek gauzatzen dituzte, aldi berean beren prestakuntza osatzeaz gain, esaterako lidergoaren, ekintzailetzaren eta strategiaren inguruko gaietan. 2014an 4 gaztek hartu zuten

parte. Enpresek haietako hiru kontratatu zituzten beren kabuz.

##### 2. Izarra Tarifa Laua

---

Ondo trebatutako gazteei lan-merkatura sartzeko prestakuntza-plan «gaitasun-emailea» eskaintzea du helburu, hain zuzen Izarra Centre enpresa-ingurunean.

2014ean honako ekintza hauek burutu dira:

1. Jendaurreko aurkezpenak: 6 h.
2. Proiektuen kudeaketa: 15 h.
3. Canvas negozio-ereduak: 12 h.
4. Motibazio pertsonala: 15 h.
5. Marketin 2.0: 10 h.
6. Management praktikoa: 32 h.
7. 3D-aren hastapenak: 40 h.
8. Musika digitala sortzea: 20 h.
9. Erakusleho birtualak sortzea: 40 h.
10. Nerea Urkolaren hitzaldia. «La revolución pendiente».
11. Germán Gómezen hitzaldia: «Conversaciones con clientes, herramienta para la mejora y la innovación».
12. Pedro Miguel Etxenikeren hitzaldia: «Ciencia. Economía. Creatividad. Cultura».

Guztira 180 pertsonak hartu zuten parte.

##### 3. Enpresetan parte-hartzea

Ermuko enpresetan parte hartzean datza, oinarri teknologikokoak eta arrazoizko hazkunde-gaitasunekoak. Horrek finantzazio azkarrari mesede egiten dio eta inbertsioaren itzulera bermatzen du.

2014an enpresa batean hartu genuen parte, eta bertan 4 pertsonak egin zuten lan.

#### 4. Ekintzaileentzako eta enpresentzako prestakuntza

Helburua Ermuan errotutako pertsona ekintzaileek beharrezkoa duten prestakuntza eskuragarri jartzea da.

Honako prestakuntza hau eman edo finantzatu da:

1. Ekintzaileentzako prestakuntza: «Lean Start-up»
2. Lineako ingeles-ikastaroa
3. Ekintzaileentzako banakako laguntza enpresa-arloan
4. Ikastaroa: VERDE ebaluatzaile bermatuak
5. Ekintzaileentzako marketina
6. NX CAD.0 programarako prestakuntza aurreratua

2014an 13 pertsonak eta 6 enpresak hartu dute parte prestakuntza horretan. 3 proiektu gurutzatu bideratu dira enpresen artean.

#### 5. Ingeniarietzako bekak produktu-ikerketarako

Gure industriak fabrika ditzakeen prototipoak gauzatzeko laguntza.

2014an 4 eskaera eta parte-hartzaile bat izan dira. Industria-proiektu bat.

#### 6. Co-working enpresa-prestakuntzako zentroa

Izarra Centren gunek bat egitea ekimen berriak sortzeko, prestakuntzarako, ekintzailetzarako eta ezagutza transferitzeko egokiak diren baliabide materialak elkartzearen bitartez.

2014an eguneko 50 erabiltzaile inguru erregistratu dira enpresa-haztegiko instalazioetan. Ikus-entzuneke edukiak dituzten 4 ikastaro burutu dira.

#### 7. Hedapena

---

Fundazioaren jarduerari ikusgaitasuna ematea, bai eta Izarra Centreko baliabideei eta enpresei ere.

2014an hainbat ekintza gauzatu dira geure web-orrialde baten bidez, esaterako berriaz kontratatutako prentsa-kabinete bat, aldizkari elektronikoak (mailchimps), askotariko paper-gauzak, bideo baten errealizazioa, enpresa baten merkaturatzearen babesa, smartphonentzako app bat edota elastikoen diseinua.

##### 4.6.5 PROMOSA.

---

PROMOSA udal-sozietatearen xedea udalerria ekonomikoki garatzeko baliagarria izatea da, ekonomia-, higiezin-, teknologia-sustapenak eta bestelakoak aztertu, diseinatu eta gauzatzearen bidez, hobekuntza ekonomikoa eta soziala ekar dezaten.

Ermuko Udalak, PROMOSA sozietate publikoaren bidez, Izarra Centren enpresentzako gunek sustatzen eta alokatzen jarraitzen du, eta, orain, 2.500 metro koadro daude okupatuta, eta eraikinean aparkatzeko dauden 168 plazetatik 54 alokatuta.

Izarra Centre ekintzailetzaren eta berrikuntzaren kultura sustatzeko behar diren azpiegiturak eskaintzeko estrategiarekin guztiz bat datorren zerbitzu-eredu gisa finkatzen ari da. Estrategia horrekin, Ermua enpresa berrientzat erakargarriagoa izatea lortu nahi da, bai eta produkzio-sarea eraldatzea eta modernizatzea ere.

Era berean, ekitaldi eta jardunaldietarako gunek komunen erabilera finkatzen ari da, bai eta eraikinean kokatuta dauden enpresek nahiz Ermuko industria-enpresek bideokonferentziak egiteko guneen erabilera ere.

Besteak beste, Etorbizi, Teknika, Euskalit, Igarle eta Gaia (Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkarte) erakundeek Izarra

Center aukeratzen jarraitzen dute jardunaldiak eta ekitaldiak egiteko, horretarako oso gune egokia delako, eta, aurten, besteak beste ESLE (Euskadiko software libreko enpresen elkarte), Lloyd's Register Quality Assurance (LRQA) eta EIC-BBK erakundeek bat egin dute haiekin.

Era berean, bi haztegi-plantak eta Izarra Fundazioaren eskura ekintzaitzarako jarritako gunea direla eta, ekintzaitzarekin zerikusia duten proiektuak eta programak egitea finkatu ahal izan da.

2014an Izarra Centren ezarritako enpresak:

ALNIA  
APTICA  
ASEGI & IZARRA  
CONSULTORES  
BABBLINIK  
BLUM-NOVOTEST  
DIBUMET  
EIC – BBK FUNDACION  
DRAVET  
ETORBIZI  
GALEA ELECTRIC  
GRUPO HOBEBIN  
GRUPO IDESA  
LOREA CONSULTING  
INNOCUT  
INTELLIGENT DELIVERY  
ITURRIAGOTIA Y  
ASOCIADOS  
MANAHMANA  
MARGUBE  
MESCO ELECTRONICA  
METINCER  
MINIS  
NEXTIRAONE-SAFE VIEW  
QUANTITAS  
SERIOUSMAN  
SOLUCIONES  
MEDIOAMBIENTALES

SPMG  
SPARA  
SUA ESTUDIO  
TODOLAN  
ZUZENBIDE KONTUAK  
SPMG  
SPARA  
SUA ESTUDIO  
TODOLAN  
ZUZENBIDE KONTUAK

2014an, Promosa, Ermuko enpresen eta herritarren artean informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera sustatu nahi duen ildo estrategikoaren barruan, herriko etxeetan zuntz optikoa zabaltzen amaitzetik hurbil dago, bost milioi euroko aurrekontua edukita. Zuntza hedatuta, indar handiagoarekin egiten da produktu berritzaile eta kalitatean nahiz banda-zabalera handiak ematen duen aukeran oinarrituta daudenen alde. Haren hedapenari esker, urtearen amaieran, Adamo, Atrium, Sarenet eta beste zenbait operadore arlo honetan garatuen dauden herrialdeetako aitzindarienen pareko telekomunikazio-zerbitzuak merkaturatzen hasi ziren, herriko zuntz-sare neutroa erabiliz prezio lehiakorretan. Teknologia horiek berebiziko garrantzia dute egungo testuinguru sozioekonomikoan, batez ere kontuan hartzen badugu zeinen baliagarriak diren proiektu soziosanitarioetan, gizarte- eta hezkuntza- arlokoetan eta soziolaboraletan.

Promosa, Udaleko beste zail batzuekin eta zenbait enpresarekin lankidetzan jardunez, zenbait proiektu abiarazten jarraitzen du, etorkizunean kalitateko enplegua sortzeko, herriko sare ekonomikoa dibertsifikatuz. Gure ahalmenean oinarrituta, lehen mailako enpresak erakartzea da helburua, eta, horrenbestez, ekonomia- eta gizarte-hazkundera sustatzea.

Teknologien erabilerak, gainera, aukera emango digu neurriak ezartzeko bi helburu hauek lortzeko: herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea handitzea, eta hori



baliabide publikoak eraginkortasun handiagoarekin erabilia egitea; hitz batean, zerbitzu publiko kalitatezkoak eta eraginkorrak ematea.

2014an alokairu-erregimeneko 57 apartamentu babesturen sustapena inauguratu da Abeletxe inguruan, Eusko Jaurlaritzaren eta Ermuko Udalaren artean sinatutako hitzarmenari esker. Sustapen hori posible izan da Ermuko Udalak orubea laga izanari esker eta Promosa sozietate publikoak gauzatutako hirigintza-jarduketeki esker.

Jarduketa hori zailtasun bereziak dituzten kolektiboek etxebizitza baterako sarbidea ahalbidetzeko helburuaren barruan kokatzen da, eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasotako beste hainbat sustapenetan lehena izan da. Plan hori Ermuko Udalaren onarpena jasotzeko zain dago, eta datozen urteetan 500 apartamentu sustatuko direla aurreikusten du.

Olañeta operazioa izan da 2014an abiarazitako beste ekintza bat, Promosaren eskutik hura ere, 8 etxebizitza libre eta BOE erregimeneko 13 sustatzera zuzendua. Horretarako kooperatiba bat eratu da babes ofizialeko etxebizitzak esleitze aldera, eta eraikuntza-lanak 2015eko irailean amaituko direla aurreikusten da.

#### Izarra Centre

jarduera	Metro koadroak
- lokalen salmenta	140,00
- haztegiko eta ekintzailtzaguneko bi solairuren salmenta	491,20
- haztegiaren eta ekintzailtzagunearen alokairua	245,60
- bileretarako funtzio anitzeko guneen alokairua	428,71
- enpresentzako bulegoen alokairua	1.240,00
- aparkaleku-plazen alokairua	54 plaza
eraikinaren okupazioa (%)	% 47,60

#### Zuntz optikoa

proiektuaren faseak	Betetze-maila (%)
- proiektuaren esleipena	% 100
- instalazio-lehiaketaren esleipena	% 100
- instalazioaren egikaritzea	% 96
- sarearen merkaturatzea	Abian da

---

## 4.7 Proiektu transbertsalak

---

Proiektu transbertsalak, orokorrean, ez dira jarduera espezifikoak; aitzitik, gure jarduera osoa blaitzen duten funtsezko helburuak dira. Hori gertatzen da emakumeen eta gizonen aukeraberdintasunaren alde lankidetzan aritzen garenean, garapen jasangarriaren alde lan egitean, gure zerbitzuen kalitatea hobetu nahi dugunean.

### 4.7.1 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

---

Enplegua lortzeko orduan eta enpleguaren baldintzetan emakumeen eta gizonen artean erabateko berdintasuna egotearen alde lan egiten dugu. Ermuko Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako prestatutako hirugarren planaren lau garapen-ardatzetan esku hartzen dugu: genero-ikuspegia sartzea Toki Garapenerako Sailaren programetan eta jardueretan; emakumeen ahalduntzea sustatzea; kontziliazio-neurriak babestea eta erantzunkidetasuna sustatzea; eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako ekintzetan laguntzea.

### 4.7.2 Kalitatea

---

Prozedurak hobetzen lan egiten dugu, zerbitzu azkarragoak, efikazagoak eta eraginkorragoak emateko.

2011tik, erabiltzaileek jasotako zerbitzuez egindako ebaluazioa automatikoki erregistratzen ari da. Datu adierazgarri moduan, hauek azpimarra ditzakegu:

Faktore orokorrei emandako batez besteko puntuazioa (1-10) hau izango litzateke:

• Instalazioak:	8,41
• Baliagarritasuna:	8,90
• Arreta pertsonala:	9,25
• Antolaketa:	8,68
• BALORAZIO OROKORRA:	8,96